



Espteia: 2019ES020006

Erref: K.G

1219 /2019 Dekretua

Egiluze ikastetxeari dirulaguntza izenduna ematea (Bertsolaritza eta ahozkotasuna) egiteagatik.

Egiluze Ikastetxeak, idatzia aurkeztu du, **Bertsolaritza eta Ahozkotasuna** jarduerengatik dirulaguntza izenduna eskatuz. Dirulaguntza hori Hondarribiko Udalaren 2019 aurrekontuan eta 2018-2019 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago.

Eskaerarekin batera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu du:

- Diru-laguntza eskaera normalizatua.
- Nortasun agiriaren kopia/Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia.
- Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituelako agiria
- Ogasun ordainketak egunean dituelako agiria.
- Kontuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- Proiektua azaltzen duen informazio orokorra.
- Ekintzari dagokion aurrekontu zehaztua (gastuak eta sarrerak).
- Beste diru-laguntzetarako eskabideei buruzko aitortpena.

Kontuhartzaitzak aurrekontu kontsignazioa badagoela dioen eginbidea ikusirik, D-1975/19 erabiliaren kargura.

Alkatetza-Lehendakaritza honek, EBAZTEN DU:

LEHENGO.- Egiluze Ikastetxeari 1.099 €ko diru-laguntza izenduna ematea onartzea, zuritzeko, **Bertsolaritza eta ahozkotasuna 2018-2019 ikastaroan** jarduera egiteko, 1.0204.481.06.335.1(8.772) aurrekontu sailaren kontura.

BIGARREN.- Diru-laguntza, ondoan zehazten diren epean ordainduko da:

1. **Diru-laguntzaren %100** (1.099 €) **Egiluze Ikastetxeak** justifikazioaren dokumentazioa aurkeztu ondoren.

HIRUGARREN.- Diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik eta/edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Hondarribiko Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzak hartzearekin.

Hala eta guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.



LAUGARREN.- Justifikazioari dagokion dokumentazioa aurkezteko epea, **2019ko irailaren 15ean amaituko da.**

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

A) Atal teknikoa:

-Zein jarduera egin diren adieraziko da, datak, parte hartzaileak eta jarduera horietarako erabilitako zenbatekoak zehaztuta.

-Jarduera bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako diru-laguntzak edo laguntza ekonomikoak egiaztatzen dituzten agiriak ere aurkeztuko dira edo, horrelakorik ezean, ez dela beste diru-laguntzarik jaso egiaztatzen duen erakundearen erantzukizunpeko adierazpena.

-Diru-laguntzaren xedea zen jarduera burutu dela eta aurkeztu zen proiektuaren arabera egin dela egiaztatzen duen egiaztagiria.

-Jarduera egin dela frogatzeko dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa ere aurkeztuko da.

B) Atal ekonomikoa:

-Jardueraren diru-sarrera eta gastuen aurrekontu banantzea aurkeztuko da, osotasunean zehaztuta, bertan adieraziz bai gastu osoa bai eta jarduera egiteko jasotako diru-sarrera guztiak.

-Egindako gastuen zerrenda zenbakitua aurkeztuko da, bai eta jatorrizko fakturak eta haien kopiak ere. Behin konpultsatu ondoren, jatorrizko fakturak itzuli egingo dira, Hondarribiko Udalak diruz lagundu dituela adierazita.

Fakturak diru-laguntzaren xedea justifikatzeko balio dezaten, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

-Jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako fotokopiak izatea.

-Fakturak xehetasun osoz islatu beharko du zein kontzeptu fakturatu den, eskuratutako ondasunak edo zerbitzuak adierazita, eta horiek zuzeneko lotura izan behar dute diruz lagundutako jarduerarekin.

-Fakturak 8/2013 eta 27/2018 Foru Arauek eskatutako baldintza teknikoak bete beharko dituzte:

1. Faktura zenbakia eta, hala badagokio, seriea.
2. Bidaltze data.
3. Fakturaren igorlearen nahiz hartzailearen (onuraduna) izena eta abizenak, sozietatearen izena.
4. Fakturaren igorlearen nahiz hartzailearen IFZ eta helbidea.
5. Jardueren deskribapena eta egite data.
6. Aplikaturako zerga-tasa eta BEZaren zerga kuota.
7. BEZa salbuetsita duten kasuetan, salbuespen hori xedatzen duen araua.

-Fakturak diruz-lagundu den jarduera edo egitasmoa burutu den epekoak izan beharko dira.

-Pertsonal-gastuen kasuan, TC1 eta TC2, nomina eta 110, 190 atxikipen-ereduak aurkeztuz justifikatuko dira.

Arestian aipaturiko atal horiek guztiak ez dituzten fakturak ez dira aintzat hartuko diru-laguntzaren justifikazioan.



-Era berean, fakturekin batera aurkeztuko dira haiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak. Egindako gastutzat joko da justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena.

BOSGARREN.- Diru-laguntzaren entitate/pertsona onuradunak harturiko konpromisoak:

a) **Urtxintxaren** proiektua garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera eta aurreikusiriko epean gauzatuko da.

b) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

c) Legearen 14. artikuluan ezarritakoak, batez ere:

- Diru-laguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta diru-laguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Beste diru-laguntza batzuk jasotzen baditu diru-laguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Jasoriko diru-kopuruaren aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

SEIGARREN.- Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru-laguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea.

Onuradunak jasoriko diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko balizko egoerak gertatzen badira, batez ere:

1.- Diru-laguntza eskuratzea horretarako beharrezkoak diren baldintzak faltsutuz edo berau eskuratzea eragozten dutenak ezkutatuz.

2.- Diru-laguntza ematearen arrazoia den helburu, jarduera edo egitasmoa ez betetzea, izan osotasunean edo zati batean.

3.- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo nahikoa ez betetzea, lege honen 30. artikulua zehazten dituen baldintzen arabera eta, bere kasuan, diru-laguntza honen arauen arabera.

4.- Aurreikusitako finantza-kontrol eta egiaztapen jarduketei aurka egitea, aitzakiak edo trabak jartzea, edo ezetza ematea; hala nola dokumentuek kontularitza, erregistro eta gordetzearen betebeharrak ez betetzea.

ZAZPIGARREN.- Diruz lagunduriko jarduera burutzean, elkarteak honakoak errespetatu beharko



Hondarribiko
Udala

ditu:

a) Euskararen alorreko klausulak: Diru-laguntzaren entitate onuradunak diru-laguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan Hondarribia Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzaren 30. artikulua honako irizpideak errespetatu beharko ditu:

“Hondarribiko Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoez nahiz entitate juridikoez, beren jardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dituzte, propaganda ere, bai ahozkoa bai idatzizkoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabe litezkeenak elebidunak baitira”.

b) Berdintasunerako klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koa, ezarritakoak.

c) Ingurumenaren alorreko klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak kontuan hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeari gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehienezko mugaz gaindikozko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

d) Publizitatea: Jardueran bertan eta haren berri emateko erabilitako hedabide guztietan (irradi, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) argi adierazi beharko da Hondarribiko Udalaren lankidetzatza.

Hondarribian, 2019ko uztailaren 12an
Alkatea/El Alcalde



HONDARRIBIKO UDALA

Izp/Fdo: Txomin Sagarzazu Ancisar